

UR, ITSASOAREN SORTZEA

Oriane Aiestaran, 13 urte

Kanbo

Urruneko herri batean, alaitasunik ez zen herrian, idortea nagusitzen ari zen. Idorte handia. Inguruan ez zen bizi aztarnarik nabarmentzen, gizakiak eta, han-hemenka, lurpeko azken tanta harrapatu nahian ibiltzen ziren sastraka ihartu batzuk ezik. Arrokkak. Zangoarekin joz geroz, hauts laino bat bilakatzen zen lurra; eguzkia eta zeru urdina baizik ez ziren agertzen. Basamortua ezker, basamortua eskuin, basamortua nonahi.

Herriko biztanleek, bizirik gelditzen ziren animalia bakanei edaten emateko ur tanta bat ere ez zuten. Karriketan, haurrak, gizonak eta emazteak agertzen ziren mehe-mehe, indarrrik gabe hautsean etzanik, gosez ...

Tarteka, goseak gidaturik, elkarren artean borrokatzen ziren. Borroka latzak, hain latzak non hilak ere izaten baitziren.

Herri hartan agure bat bizi zen. Bizirik irauten zuen agure bakarretarik bat. Eri eta itsu izan arren, burua osoa zuen. Egun guztia bere etxean pasatzen zuen, itzalean. Inork ez zekien haren adina.

Jendeak zioen, mundua sortu zenean jaio zela: belaunaldiz belaunaldi irauten zuela. Galdera guztien erantzuna zuen; munduaren itzulia mila maneratan egina zuela zioten eta inork ikusten ez zituen gauzei mintzatu zitzaieela.

Gauero, herriko biztanleak harekin elkartzen ziren. Bakoitzak zituen kezkek kontatzen zizkion eta nahiz eta galderak beti berdinak izan, berak bizi izan zuen edo entzundako istorio batekin erantzuten zien.

Hala bada, gauero istorio bera kontatzen zien: “Duela mende asko, herri batean, gizon dirudun eta harro batek emaztea eta haurra etxetik bota zituen diru istorioengatik. Emaztea eta haurra oinez joan ziren ahal bezain urrun. Urruntzen ziren heinean, ura desagertzen zen. Erraten da, nekaduragatik biak gelditu zirela nonbait, urrun, biziki urrun, eta ur guztia, haiekin batera, urrun gelditu zela”.

Gau batez, alabaina, zerbait gehitu zuen: “Geroztik gizon horren oinordeko bat gure artean bizi da oraindik eta iduriz urarekin lotua den izen bat du.”

Usaian jendeak gizon bitxi haren istorioa mespretxuz edo mesfidantzaz hartzen zuen, baina,aldi hartan, azken esaldiak erabat asaldatu zituen: herrian, urarekin lotura zuen gizon bakarra Ur deitzen zen, eta biharamunean Uhaina izeneko emazte batekin ezkontzear zegoen.

Jendea urduri jartzen hasia zen. Ezkonduz gero, berak ere bere arbasoak bezala egingen balu? Zer

kenduko zien? Zer galduko zuten oraingoan? Bizia?

Erabaki bat hartu behar zela-eta, bildu eta gau osoa eztabaidan pasatu zuten.

Biharamun goizean, Ur gaixoari bere patua jakinarazi zioten: ura berriro berreskuratu arte herri-tik joan behar zuela. Urrun, ahal bezain urrun, berekin gauza bakar bat eramanez.

Urek, tristuraz obeditu zien eta emaztegaia mila aldiz besarkatu ondoren, haren argazki bat hartu, urre koloreko bihotz itxurako lepoko batean sartu eta joan zen. Burua apal, bihotza estu, bere gibel-ean herritar guztiak eta bere maitalea negarrez utzi-rik.

Bere baitan, triste bezain kexu zen. Zergatik BERA zuten erbestera behar? Herrikoak betira-ko uztea erabaki zuen.

Egun osoak pasatzen zituen ibiltzen, noraezean, basamortuan.

Gau batez, harkaitz baten ondoan jarri zen, aki-tua. Bazuen hilabete oso bat ibiltzen ari zela, ezer jan gabe, lo egin gabe eta urik hunkitu gabe. Bere lepokoa hartu zuen argazkia ikusteko, baina Uhainaren irribarreak triste jarri zuen. Uhainaz berriro pentsatzean, bere izenagatik erbestera- zuten herritarrez gogoratzen zen eta horrek sutzen zuen. Lepokoa bihotzean estutuz, denbora luze hartan gordeta zeramatzan malkoak bota zituen. Malkoek bere oinetan putzu bat osatu zuten, baina egiten zuen beroarekin putzua berehala lurrundu zen.

Egun batzuk pausatu ondoren, berriro ibiltzeari ekin zion, baina beti negarrez, gau eta egun negar zotinka. Aitzinatzen zen heinean, bere gibelean negar tantekin putzu ttiki batzuk sortzen ziren.

Larrundutako malkoak laino bihurtu ziren, zeruan eguzkia gordez eta lur gainean itzala eginenez. Baina Ur ez zen konturatu, bere tristuran bildurik segitzen zuen, ibiltzen. Hodeiek haize leun bat ekarri zuten idorte handi hartara, beroa apaldu nahian bezala. Baina Urek beti negarrez segitzen zuen. Bere gibelean gero eta ur gehiago metatzen zen.

Negarrez 365 egun pasatu zituen, gelditu gabe, eta bere atzean utzitako putzuek jada basamortu osoa estaltzen zuten, metro batzuk sakon. Haize leunak ur-basamortuan uhainak sortzen zituen.

Bitartean, Ur gero eta tristeagoa eta nekatuagoa zen. Auhinak eta kexuak botatzen hasi zen, ur-basamortuko isiltasuna hautsi nahi izan balu bezala. Bere oihuek trumoi itxura zuten eta zerua dardarka ari zela zirudien. Ur belaunikatu zen bere maitalearen izena oihukatzen zuen artean: “Uhaina! Uhaina! Uhaina!”. Zeruan bere auhen eta oihuek trumoi osatu eta lehertu zuten. Bihotzean zituen minek ximixta zapartarazi zuten, itsaso berria astinduz. Ura, eroturik bezala, goitik behera zihoan, topatzen zituen harkaitz eta sastraka guztiak errotik erauziz. Mugimendu guzti horrek ez zuen Ur bere gogoetatik ateratzen. Pixka bat lasaiturik, zutik jarri eta ibiltzen jarraitu zuen.

Urteak eta urteak pasatu zituen ibiltzen, munduaren itzulia egin nahi izan balu bezala. Negarrez segitzen zuen, baina ez zen lehen bezain triste eta ez ziren trumoi bilakatzen igortzen zituen auhen eta kexuak. Eta denborarekin, itsasoaren zati batzuk desagertu ziren, lorez lore ibiltzen ziren tximeletei, zuhaitz gainean edo airean kantatzen zuten xoriei, eta soka saltoan ari ziren hurrei tokia utziz.

Batzuetan Uhainaren argazkiari begiratu, herriarren kontrako solas batzuk botatzen zituen, sortu berri zen paisaian haize boladak sortuz.

Bitartean herriko biztanleak uros ziren. Zuhaitzak, loreak, animaliak eta ura baitzuten. Batzuei gerria loditu zitzairen eta herria handitu zen. Hogeita hamar eta berrogei urteren artean zituzten gazteek ez zuten idortarik ezagutu, baizik eta ur ugaria. Ur ugari zuten bai, baina ur gazia...

Egun batez, munduan urari gatzak joaten bazaio, Urek zoriona aurkitu duela esan nahiko du...